



Testua eta argazkiak
INTZA GURRUTXAGA

Ekvador

LEHENGAI NATURELEN MADARIKAZIOA



Mundukide GKEren eta Laboral Kutxaren egitasmo bati esker, Euskal Herriko beste hamar gazterekin batera, 20 egunez, Ekuador ezagutzeko parada izan dut. Ezezaguna ezagun bihurtzeko bide labur horretan, aniztasunez jositako herrialde bat topatu dugu. Dena ez da, ordea, ederra izan; bidegabekeria, ustelkeria eta eskubide urraketa ugari ere ikusi ditugu eta egungo munduaren argazki benetakoagoa ateratzeko pribilegioa izan dugu.

Bidaiatzean eta leku desberdinak bisitatzean konturatzen zara bizitzeko eta izateko modu ugari daudela hor zehar. Egia da, globalizazioa tarteko, gero eta homogeneoagoa bihurtzen ari dela mundua eta, ondorioz, elkarren arteko desberdintasunak murrizten doazela. Desberdintasunak gutxituz doaz, baina ez gaituzen nahastu, zapalduen eta zapaltzaileen sistemak indar betean jarraitzen du. Hala bada, Ozeano Atlantikoa zeharkatu eta Ekuadorra iritsi orduko konturatu nintzen, ezagutzen nuenarekin alderatuta, hura bestelakoa zela.

Lau eskualdetan dago banatuta herrialdea: mendialdea (Andeak), ekialdea (Amazonia), kostaldea eta Galapago uharteak. Eskualde horiek, berriz, probintziatan antolatuta daude; gero, probintziak kantoietan zatitzen dira; kantoiak parrokiatan; eta parrokiak komunitatetan.

Zentzu askotan, altxor bat da Ekuador. Hizkuntzei dagokionez, esaterako, gaztelania izan arren erabilienean, orotara, 14 hizkuntza daude onartuta. Gu ibili ginen eremuetan bi entzun ahal izan genituen: kichwa eta waorania. Kulturari dagokionez ere, oso herrialde aberatsa da. Zentzu horretan, jatorrizko

herriak belaunaldiz belaunaldi jasotako jakintzen eta ohituren gordailu oso baliotsuak dira.

Egungo sistema kapitalistan, non gauza materialen produkzioa eta kontsumoa den lehentasuna, bada aipatutako aberastasun horien gainetik kokatu diren elementuak; hain justu, lehengai naturalak. Azken urteetan, Ekuador oso interesgarria bihurtu da herrialde eta enpresa askorentzat, lehengai ugari aurkitu baitituzte bertan; besteak beste, petrolio eta mineralak. Mendialdeko (Andeetako) eta ekialdeko (Amazonia) eskualdeetan izan ginen gu eta bertan dagoen biodibertsitatea ikaragarria da. Horrenbesteko landarediaren, animalien, ibaien... ondoan, txiki, ezereza, sentitzen zara eta hura guztia arriskuan dagoela konturatzean, inpotente eta errudun.

Herrialdea diruz aberastuko duenaren ametsarekin, lehengai horiek ustiatu ahal izateko, hainbat herritar eta gobernua lurra saltzen edo uzten hasi dira; gehienetan, atzerriko enpresei. Emaizak, ordea, ez dira uste bezalakoak izan eta herrialdearen pobrezia maila ez da hobetu. Gizarte kapitalistaren kontsumo beharrak ase ezinak direnez, lehengai horiek guztiak



Euskal Herriatik joandako gazte taldea — tartean Intza Gurrutxaga — bertako bizilagunekin. / Arg.: Ainhoa Zubizarreta.

eta gehiago behar ditugu gure egungo bizimoduari eutsi ahal izateko. Beraz, epe motzeko konponbidea da lurralde horietako lehengaiak ustiatzea; ondorioak, ordea, behin betikoak eta atzera-bueltarik gabekoak dira. Dagoeneko, jatorrizko zenbait herri euren lurretatik kanporatu dituzte eta basoak suntsitzen eta ibaiak kutsatzen ari dira.

Meatzeen afera

Mendialdeko eskualdean, herritarren aldetik, erresistentzia handia dago meatzeen aurka. Intageko bailaran ibili ginen gu eta bertan, meatzeak dira mehatxu nagusi. 1995ean, Mitsubishi enpresa japoniarra izan zen eremu hartan sartzen lehena. Komunitateko kideek, ordea, kanporatu egin zuten eta geroztik, 27 urte daramatzate erresistentzian eta alternatibak sortzen.

Zenbait herritarren nahien gainera, gobernuak eremu desberdinak ustiatzeko baimena eman die meatze enpresei eta horren aurrean, hainbatek sarrera eragotzi nahi diete. Estrategietako bat lur horietan aktibitate desberdinak garatzea da; esaterako, turismoa edota elikagaien ekoizpena. Ideia bat egin dezazuen, meatze bat, gutxi gorabehera, 30 urtez ustiatzen dute, lurrazaleko milaka eta milaka hektarea hartzen ditu eta sakoneran, beste zenbait kilometro dauzka. Ondorioz, eremu horretako biodibertsitate guztia galtzen da eta lehengora itzultzeko prozesuak ehunka edo milaka urte irautu ditzake.

"Hasieran, ezjakintasunagatik, ez geunden meatzeen aurka, baina 1994 urte aldera, kutsaduragatik ibaietako ura kolorez aldatzen hasi zen eta herritarrak kontzientzia hartzen hasi ginen".

Junin kantoiko komunitate bateko kideek azaldu zigutenez, asko borrokatu behar izan dute eta beldur handiarekin bizi izan dira. "80ko hamarkadan, lurrak aztertzeraz eta laginak hartzeraz etorri ziren lehen meatze enpresak. Hasieran, ezjakintasuna tarteko, ez geunden meatzeen aurka, baina 1994. urte aldera, kutsaduragatik ibaietako ura kolorez aldatzen hasi zen eta herritarrak kontzientzia hartzen hasi ginen", dio Marcia Ramirez komunitateko kideetako batek. Apurka-apurka antolatzen hasi ziren eta meatzeetako langileak kanporatu egin zituzten. Horren aurrean, gobernuaren aldetik, errepresioa hasi zen: "1997an, herritar batzuk preso hartu zituzten. Auzitegi-tako bidea hasi genuen eta, azkenean, irabazi eta denak aske geratu ziren".

1998tik aurrera, meatzeen aurrean alternatibak sortzen hasi ziren, "jendeak dirua irabazteko beste modu batzuk ezagutu zitzen". Ramirezen familiak turismo komunitarioaren aldeko apustua egin zuen; beste zenbait kafe organikoa ekoizten hasi zen.

Horren aurrean, ordea, meatze enpresak ez dira besoak gurutzatuta gelditu. Euren ere beraien estrategiak garatu dituzte: "Lurrak erosi eta 300 langile kontratatuta, nekazaritza lantzen hasi da meatze enpresa bat; gauzak oparitu eta lursailak erosten dituzte", dio Ramirezek. Ondorioz, herria zatituta dago eta batzuk meatzeen aurka ari diren bitartean, hurbileko beste bizilagun batzuk horietan lanean ari dira.

Bi errealitate horien elkarbizitzak zirrara eragiten du. Gogoan dut meatze enpresa baten esku dagoen eremura sartu ginen eguna. Juninen bertan, mendian gora joanda, hesi batez inguratutako eremu batera iritsi ginen. Zaindariak zeuden sarreran —askotan bertako



Kutsatu gabeko ibaia ezkerrean, kutsatua eskuinean. / Arg.: Mundukide.



Suntsitutako eremua. / Arg.: Mundukide.

herritarrak izaten direla azaldu ziguten —. Hesi barruan, bizitzaz betetako oihan zabala zegoen; guztia meatze enpresa baten esku eta, beraz, deuseztatua izateko arriskuan. Ur-jauzi baten magalean, ura eta harriak produktu laranja batez estalita zeudela ohartu ginen. Azaldu zigutenez, oraindik bertan meatzerik egon ez arren, aurrelanean erabiltzen duten produktuetako batek sortutako kutsadura zen hura.

Borrokan jarraitzen dute eta amore emateko asmorik ez daukate. Ministerioan salaketa bat baino gehiago jarri dituzte ibaiak kutsatzen edota milaka urte dituzten zuhaitzak botatzen ari direlako. Ministerioak azterketak egin eta gauzak ondo egiten ari direla erantzuten die, ordea.

Bide beretik, Napoles komunitateko kideek azaldu zigutenez, "gobernua komunitate honetako lurren %100a meatze enpresa baten esku utzi du. Esleipen horiek egiterakoan, bertan bizi garenak ez gaituzte kontutan hartzen. Horregatik, gure helburua da, beraiek sartu baino lehen nekazaritzaren bidez, lur hauek aktibatzea".

Elkarlanaren fruituak

Meatzeen sarrera oztopatze aldera, beraz, lur horietan aktibitate ekonomiko desberdinak garatzen hasi dira. Ingurumenarekiko kontzientziazio maila oso altua dute askok eta garatzen ari diren ekintzak bide horretatik doaz. Hala, mendialdean galdutako komunitateetan, simaurretik ongari organikoa edota metano gasa

lortzen dituzte, baita, energia hidrohdraulikoaren bidez, bonbillak edo ur-bonbak martxan jarri ere.

Gainera, etsai beraren aurka antolatzen eta indarrak batzen jakin izan dute. Besteak beste, kafe ekoizleen nahiz nekazarien kooperatibak sortu dituzte. Toisan korporazioa da elkarlan hori sustatzen diharduenetako bat. Proiektu horren sustatzaileen hitzetan, meatzeen aurka alternatiba ez suntsitzaileak sortzen ari direnei babesa eman asmoz eratu zen korporazioa. Helburua da ekonomia herrikoia ren eta solidarioaren bitartez, lur horietan aktibitate jasangarri desberdinak garatzea eta meatzeen sarrera oztopatzea: "Guk ezetz esaten diogu meatzeari, baina alternatibak ematen ditugu". Beraien aburuz, basoa suntsituz gero, urik ez da egongo eta hortaz, elikagairik ere ez.

Meatzeen atzean, bankuak, usteldutako gobernu eta enpresak daudela eta ondorioz, borroka irabaztea oso zaila dela diote. Korporazioko kideek argi dute zein den jarraitu beharreko bidea: "Ahaztu dezagun garapena eta zentra gaitezen ongizatean. Gobernuak uste du garapena dirua dela, baina garapenak biodibertsitate hau guztia deuseztatuko du".

Borrokan jarraituko duten belaunaldi berriak badaude, "baina gazteek lan egin nahi dute eta askotan, borrokatik kanpo geratzea erabakitzen dute". Zentzu horretan, manipulazio asko dagoela diote: "Gazteei lana eta dirua ematen diete euren aldera igaro daitezen eta meatzeen kontra indarrak egin ez dezaten". Hala ere, korporazioko kideak etorkizunarekiko itxaropentsuak dira eta denbora beraien alde dagoela diote, "ingurumenarekiko gero eta kontzienteagoa da jendea".

Emakumeak ere, elkarlanean, gauzak eraldatzen ari dira. Xaboiak eta kremak ekoizten dituzten emakume talde bat dago El Rosal komunitatean. Bertako kide baten hitzetan, "ekonomia arloan, emakumeak alde batera utzi gaituzte; etxerako bakarrik balio izan dugu.



Arg.: Veronica Satrustegi.



Arg.: Intza Gurrutxaga.



Arg.: Intza Gurrutxaga.

Ayuda en Acción GKEari esker, produktu kosmetikoak egiten ikasi genuen eta orain, etxetik irteten gara eta dirua irabazten dugu". Hasieran, jendeak ez zuela beraiengan konfiantzarik eta horretarako ez zutela balio uste zutela azaldu ziguten, "baina, pixkanaka, gure produktuetan sinesten eta emakumeok gizonak egiten dituzten lan berak egin ditzakegula ikusten hasi da jendea".

Ahaldunze prozesua ez dela erraza izan gaineratu zuten, "dibortzioak egon dira...". Egun, genero biolentziaren aurka ari dira lanean, "gauzak aldatu dira baina, oraindik, asko dago egiteke. 2013an genero biolentziaren aurkako ordenantza bat egitea lortu genuen. Gero, beste alkate bat jarri zen boterean

eta, pandemia garaia aprobetxatuz, alde batera utzi zuen ordenantza. Orain, hauteskunde kanpaina daudenez bisitan etorri dira eta nik uste lortuko dugula berriro indarrean jartzea".

Francisco Orellana hirian, Orellanako emakume waoraniak elkarteko kideak ezagutu genituen. Artisautza produktua (lepokoak, belarritakoak, eskumuturrekoak, poltsak, saskiak...) egiten dituzte. Prozesu guztia eskuz eta baliabide naturalak erabiliz egiten dute.

Ustiategiak Amazonia inbaditzen

Mendialdean ez bezala, ekialdean ez dago petrolio edo egur ustiatzaileen aurkako mugimendu indartsurik. Arrazoi desberdinak medio, herritarren artean ez da kontzientziarik garatu eta petrolio enpresen estrategiek funtzionatu egin dute. Erosita dituzte bertako herritar asko eta diruaren truk, petrolio estazioak egin eta oihanean gero eta barrurago sartzen ari dira. Gobernuaren aldetik ez dute oztoporik izan; alderantziz, erraztasunak eman dizkiete.

Errepide bazterretan, kilometrotan zehar, petrolioak garraiatzeko hodiak daude eta puntu desberdinetan, 24 orduz marxan dauden *metxeroak*. *Metxero* edo tximinia horietan petrolio ustiatzerakoan sortzen diren gasak erretzen dituzte. Prozesu horretan, osasunarentzat kaltegarriak eta berotze globalean eragin zuzena duten gasak igortzen dituzte atmosferara. Petrolio enprekin batera, azpiegitura horiek guztiak ere oihanean, gero eta barrurago, ari dira sartzen eta jatorrizko herritarrek euren lurretatik kanporatuak izaten ari dira.

Amazoniako oihanean, Yasuni Parke Naturalean hain justu, waoraniekin egoteko aukera izan genuen. Kanoa motordun batean, Amazonas ibaiadara den Shiripuno ibaian barna, hiruzpalau orduko bidaiaren ostean iritsi ginen eurengana. Zuhaitz enbor eta hostoekin eginiko txabolatan bizi dira eta oihanetik lortzen dituzte beharrezko elikagaiak. Waoraniak zenbait komunitatetan, petrolio enpresen presentzia suma zitekeen. Izan ere, lurren truke eraikitako hormigoizko etxeak topatu genituen.

Waoraniek 1950ean eduki zuten lehen harremana zibilizazioarekin; beraiek bizi ziren lurretan petrolio zegoela jakin zutenean, hain zuzen. Ordura arte, komunitate horiek nomadak ziren eta ehizatik nahiz arrantzatik bizi ziren. Waoraniak artean, ordea, badira bi tribu gizartearekin inoiz harremanik eduki ez dutenak: Tagaeriak eta Taromenaneak —euren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, David Beriain kazetariaren *Yasuní, genocidio en la selva* dokumentala ikustera gonbidatzen zaituztet—. Kontaktatu gabeko



Petrolio gaeraiatzeko hodiak. / Arg.: Intza Gurrutxaga.



24 orduz piztuta dauden *metxero*etako batzuk. / Arg.: Unai Iradi.

herriak deitzen diete eta hautu propioz, "zibilizaziotik" at egotea erabaki zuten. Euren nahiari eustea, ordea, gero eta gehiago ari zaie kostatzen.

Horiek ere Yasuni Parke Naturelean bizi dira, Eremu Ikusezina deiturikoa. Ez dira, ordea, waoraniekin harremanetan. Ez harremanetzeaz gain, waoraniak eta kontaktatu gabeko herrien artean, historian zehar, hainbat gatazka eta hilketa egin dira.

1999an, bi herri horiek bizi ziren oihan zatia Eremu Ikusezin izendatu zuen gobernuak. Hala, petrolio enpresei bertara sartzeko debekua ezarri zitzaion. Eremu horrek, ordea, ez zuen Tagaeriak eta Taromenaneak antzinatek bizi izan ziren oihan zati osoa hartzen; petrolio enpresen interesen arabera mugatu zuten eremua. Urteek aurrera egin ahala, petrolio ustiatzeak eremu horretara gero eta gehiago ari dira gerturatzen eta presioa areagotuz doa.



Waorania emakume taldea. / Arg.: Unai Iradi.

Errepide berrien eraikuntza, ibilgailuen eta makineriaren zarata, kutsadura... Aldagai ugari ari dira eragiten herri horien eguneroko bizitzan eta baita bertako animalien ere. Ondorioz, gero eta zailagoa da eurentzat oihanean bizirautea. Askoren ustetan, gauzak horrela jarraituz gero, galbidera kondenatuta daude.

Herri horien eskubideak zapaltzen ari dira eta gobernuaren aldetik ez dago erantzunik. Horregatik, Alejandro Labaka Fundazioa bezalako erakundeek lana beharrezkoa da. "Gure helburu nagusia kultura desberdinak ezagutaraztea eta herrialde indigenen eta ez kontaktatuen eskubideak aldarrikatzea da", dio Adrian Alvarez fundazioko kideak. Hala, fundazioak sustatutako proiektu esanguratsuenetako bat Macco Museo Arkeologikoa eta Zentro Kulturala izan da. Ekuadorren baitan dauden kultura eta nazionalitate desberdinen inguruko informazioa topa daiteke bertan.

Energia berriztagarrien alde iluna

Miriam Lang Universidad Andina Simon Bolivar unibertsitateko irakaslearekin, mahai-inguru bat egin genuen energia berriztagarrien inguruan. Bera energia berriztagarrien kontrapuntua azaltzen saiatu zen. Egia hori, energia berriztagarriena baino gehiago, egungo kontsumo ereduarena. Bere hitzetan, "baliabideak finitua dira, inork ez du horretaz hitz egiten eta hori oinarritzkoa da".

Mundu mailan, hitzarmen desberdinak egin izan dira energia jasagarrien inguruan. Besteak beste, Green Deal itunaren eta akordio horrek dituen hutsuneen inguruan aritu zen hizketan: "Hitzarmen hori, soilik, Europako herrialdeentzat da bidezkoa". Langen arabera, hitzarmen horren bitartez, energia jasagarria sortzen da Europaz kanpoko herrialdeetan, ondoren, Europa esportatzeko. Ondorioz, kostu sozialak eta ingurugirokoak herrialde jakin batzuek bakarrik ordaintzen dituzte. Testuinguru horretan, bestelako akordio batzuk eraiki behar direla aldarrikatzen du.

Era berean, deskarbonizazioari aurre egiteko, mineralen eskaera modu masiboan handitu dela eta munduko erreserba mineral estrategikoen erdiak Hego Ameriketan daudela nabarmendu zuen. Ondorioz, "1970etik Hego Amerika izan da biodibertsitate galera handiena izan duen lurraldea". Langek argi du energia berriztagarriak energia fosilen neurri berean ekoiztea ez dela jasagarria. Bere proposamena da ekoizpena jaistea, beraz, kontsumoa murriztea, eta nazio bakoitzak behar duen energia bere lurretan ekoiztea. Alegia, tokiko eskaerari, tokian tokiko baliabideekin erantzutea. Horrela, nahitaez, kontsumoa murriztu egingo litzateke, herrialde gehienek ez baitaude egungo euren energia eskaerari erantzuteko adina lehengai.